

Iruñean, 1996ko martxoaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
San Martin, J.
Sarasola, I.
Satrustegi, J.M.
Villasante, L.
Zabaleta, P.
Jimeno Jurfo, J.M.
Atxa, J.
Cortes Izal, J.
Lizundia, J.L.
Zearreta, J.J.

Iruñeko ordezkartzan, 1996ko martxoaren 29an, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzain osoak gelan zirela. Bigarren partean, hots, Tirapu jaunaren oroigarritzakoan, agiri honen bukaeran izendatzen diren ohorezkoa eta urgazleak, bai eta omenduaren senideak ere izan dira. Ezin etorria adierazi dute M. Azkarate, P. Charritton, E. Larre eta A. Zavalak.

Batzarrari ekin baino lehen, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Jose A. Arkotxa urgazlearen hilberria eman du. Juan San Martinek aurkeztuko du hurrengo batzarraren batean hari buruzko txostena. P. Charrittonen anaia ere hil dela esan du Haritschelhar jaunak. Dolumina helaraziko zaie bi zenduen familiei Euskaltzaindiaren ize-nean.

Agiria

Otsaileko agiria onartu da, zenbait zuzenketa jaso ondoren.

Urgazle berriak

Urgazle berrien bozketa egin da. Boto-ahalak jaun hauek zituzten: J. Haritschelharrek

E. Larrereren eta P. Charritonena; J.M. Lekuonak A. Zavalarena, eta P. Salaburuk M. Azkaraterena. Otsaileko batzarrean hautagai guztien curriculumak banatu zen, erabakia hartzeko tenorean lagungarri gerta zedin, eta egungo batzarrean bi orri zabaldu dira, hautagaien zerrendarekin. Denbora irabazteko orri horiek erabili dira boto-paper.

Botoak zenbatzeko mahaia izendatu da, F. Krutwigek, J.M. Lekuonak, P. Goenagak eta J.L. Lizundiak osatua. Beste gela batean aritu dira langintza horretan. Hona non emaitzak:

Luis Baraiazarrak	20 boto
Jean Orpustanek	19
Patxi Salaberrik	20

Mikel Gorrotxategik	17
Antton Aranburuk	16
Jesus M. Etxezarretak	14
Xabier Altzibarrek	20
Gorka Aulestiak	17
Ana M. Toledok	18
Lourdes Oñederrak	21
Iñaki Gamindek	18
Pilartxo Etxeberriak	19
Erramun Bachoc	18
Sebastian Garcia Trujillok	13
Jose Agustin Arrietak	18
Joan M. Irigoienek	20
Patziku Perurenak	18
Dionisio Amundarainek	20
Koldo Bigurik	17
Xabier Kaltzakortak	16
Joseba Butronek	15
Igone Etxebarriak	19
Luzien Etxezaharretak	20
Manex Pagolak	21
Koldo Zuazok	19
Jose R. Zubimendik	14
Natela Sturuak	21
Salome Gabuniak	22
Suzuko Tamurak	23

Hortaz, zerrendako guztiak hautatu dira urgazle. Idazkariordeak hautapenaren berri emango die.

Hiztegi Batua

Eguno hitz saila aztertzen hasi baino lehen, J.L. Davantek Hiztegi Batuko batzordeari egin gutuna irakurri du P. Salaburuk. Gutunean Euskaltzaindiaren partaide-tzarekin prestaturiko *Nekazaritza hiztegia*-k *baratze* forma hobetsi zuela zioen Davant jaunak. Hori kontuan harturik, batzordeak *baratze* eta *baratzezain* formak sartzea proposatu du, eta ez *baratza* eta *baratzazain*. Horrela erabaki da aho batez.

Otsailean banaturiko hitz sailaren gainean Tx. Peillenek eta E. Knörrek bidali dituzte oharrak. Era berean, X. Kintana batzordekideak boto partikularra ekarri du biz-pahiru punturi buruz.

Besteak beste, *berrein* agertuko da, “batez ere bizk.” markarekin. Aldiz, *beretter*, ez *bereter*; X. Kintanak nahi zuen *bereter* forma gero sar liteke. *Besomotz* / *besamotz* auzian, lehenbizikoa hobestea erabaki da, eztabaida luzearen ondoan. *Betun* hitzaz ere mintzatu da; azkenean horrela sartzea erabaki da, baina “Ip. *ziraiia*” aldamenen duela. *Bezitu* aditza iragankor eta iragangaitz joka daitekeela adieraziko da. *Bibliotekari* baino literaturan sarrera zabala duen *libuzuzain* hobetsi da. B. Oihartzabalek *beteezin* eta antzeko hitzetan den grafia zalantzak aipatu ditu. I. Sarasolaren iritziz, izen baten ondoan datorrenean hobe *ezin* loturik idaztea.

Exonomastikako erabakizunak hurrengorako utzi dira. Martxoko batzarreko zerrenda laster banatuko zaie euskaltzainei.

Eskuartekoak

Patxi Zabaletak Fontellasko ikastola berria bihar zabalduko dela adierazi du. Nafarroako ordezkaria den J.M. Satrustegi eta bera joango dira ekitaldira.

Pello Telleriak burutu bi txosten banatu dira. Batean Euskaltzaindiaren batzordeek 1995ean egindako bilerak ageri dira. Bestean, urte horretan Akademiak emandako ziurtagiriak: 3.419 izan ziren.

Espainiako Kultura Ministerioak urteoro antolatzen dituen sarietarako Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu dira:

Espainiako Letren saria: I. Sarasola.
 Poesia saria: L.M. Mujika.
 Kontaera saria: Andu Lertxundi.
 Saiakera saria: X. Kintana.
 Teatro saria: E. Arozena.
 Haur eta Gazte literatura saria: J.L. Goikoetxea.
 Itzulpen saria: E. Knörr.

Beste lau izen aipatu dira, batzarrean ez diren lau izendatuen ordezkari joan daitezten: G. Aulestia, Joan M. Irigoien, X. Altzibar eta I. Idiazabal Euskaltzaindiaren ordezkari izan dira eramango duena ezein alderdikieratarako makurtuko ez dela segurtatzeko garrantzia azpimarratu dute euskaltzain batzuek.

J. Antonio Arana liburuzaina zaharsaritu berri dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Batzartuen goresmenak jaso ditu Arana jaunak. Barne-erregielek diotena gogorarazi ondoren, liburuzain berria izendatu bitartean liburutegira astean bi aldiz etorriko dela esan du J.A. Aranak. Lehiaketarako prozedura datozen hilabeteetan aztertuko du osoko batzarrak. P. Goenagak liburutegia arratsalde ere irekitzea eskatu du, orobat beste zenbait euskaltzainek. J.A. Aranak esan du asmo hori berori duela Zuzendaritzak. X. Kintanarentzat segurantzaz neurriak oso kontuan hartu behar dira.

Eusko Ikaskuntzak Euskadiko Kutxaren diru babesaz iaz abiarazi zuen Giza eta Gizarte Zientzien arloan Euskal Herriko curriculum vitae zientifikoei nabarmenarentzako saria. Aurtengo proposamenak aurkezteko epea ireki delarik, J. Haritschelharrek Zuzendaritzaren iritzia agertu du, hots, Luis Villasante euskaltzainburu ohia dela pertsonarik egokiena. Horrela erabaki da, inor ere kontra ez delarik.

A. Irigoyenek bere gutuna irakurri du. Otsaileko batzarrean harturiko erabakia, International Congress of Onomastic Sciences delakoaren 20. Biltzarra Euskal Herrian egin dadin eskatzea, dela eta, esan du gai hori ez dela batzordean erabili; Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza izanik ere, Deustukoarena ezin bazter litekeela, eta biltzar hori antolatzeko beste eskari-egile batzuk direla. E. Knörrek erantzun du batzordean bai tratatu dela gaia; Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza eskatu izanak ez duela beste unibertsitateen laguntzarik kentzen, eta beste eskari-egile batzuk badirela guztiz normala dela. Horrez gain, M. Angeles Libanoren *Toponimia medieval en el País Vasco* liburuzan A. Irigoyenek euskaltzain guztiei bidali gutunaz berak, Onomastika batzordeburua den aldetik, beste gutun bat idatzi duela adierazi du.

J.M. Satrustegik esan du Nafarroako Euskararen Kontseilua laster eratuko dela, Euskaltzaindiaren ordezkartzarekin. Buru Javier Otano presidentea izango da, eta burordea Federico Tajadura Presidentziako kontseilaria. Bestalde, epaitegian dagoen auzi baten berri eman du. Euskara hutsezko iragarkiak ezartzeagatik auziperatu da Iruñeko elkarte bat. Euskaltzaindiaren iritzia eskatu du epaileak. Elkartearen abokatua Carlos Garaikoetxea Mina da.

J.J. Zearreta ekonomia eragileak euskaltzainekiko zorrei buruzko azalpena eman du eta 1995eko azarotik abendu bitarteko atzerapenak txekearen bidez ordaindu ditu bertan.

Txomin Peillenek *Ilargi xendera* deritzan euskal opera Baionan egun hauetan antzetzuko dela esan du. Jon Casenavek idatzi du libretoa, eta Pello Çabalette izan da musikagilea.

Frantzisko Tirapu

Atsedenaldirik baten ondoren, ordubata eta laurdenean, hasi da Frantzisko Tirapuren omenezko ekitaldia. J.M. Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa eta J. Atxa eta J. Cortes Izal urgazleak sartu dira batzar gelan, Tirapu jaunaren senideekin batera. Cortes Izal jaunak irakurri du bere txostena. Lehen partean Tirapu jaunaren bizitzaz hitz egin du. Erasunen sortua, maisu ikasketak egin zituen Iruñean eta 20 urtetan (1950-1970) aritu zen euskarazko irakasle gisa, Zubiaur foru diputatuak eraginik hasitako eskolen arduradun. Tirapu jauna ikastolen sortzaile ere izan zela aipatu du hizlariak. 1983an egin zitzaion omenaldi handiaren berri ere eman du. Nafarroako ikastolen lehen urratsak eta gorabeherak xehekiro azaldu ditu bigarren partean.

A. Irigoyen, J.M. Jimeno Juriok, F. Krutwigek, J. San Martinek eta J.M. Satrustegik parte hartu dute ondoko elkarrizketan.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria